

Herri Programa (eus) **SANTURTZI**

2023 – 2027



ehbildu

Auzo eta pertsona guztiak berdinak izango diren Santurtzi bat nahi dugu, eskubide berdinekin eta beraien behar guztiak beteta dituela.

Erdialdea eta auzoen artean Santurtzi orekatua bat, auzokide guztien partaidetzaren bidez eraiki behar dena, bizi-kalitate hobea bilatuz eta gure kaleak bizitzaz betetzeko guneak berreskuratzeko apustua eginez.

Merezi duzun Santurtzi, benetako Santurtzi berdinzalea gizon zein emakumeentzako, non jende gazteak bizi nahiko duen eta nagusiko jendeak behar dituen zaintza guztiekin bizi ahal izango duen Santurtzi.

Hori da merezi duzun Santurtzi eta lanean jarraituko dugunaren alde.

Indizea

1. GOBERNU LEHEN 100 EGUNETAN HARTZEKO NEURRIAK	05
2. PROIEKTU NAGUSIAK	07
2.1. Santurtzibus	
2.2. “PORTUA” proiektua	
2.3. Etxebizitza	
2.4. Haur-eskolak	
3. SANTURTZI ETA BERE AUZOETARAKO PROIEKTUAK	09
3.1. Orokorra	
3.2. Erdialdea – Santurtzi	
3.3. Kabiezes	
3.4. San Juan	
3.5. Mahastiak – Bullón	
3.6. Mamariga	
3.7. La Magdalena	
4. ZEHARKAKO POLITIKAK	14
4.1. Gizarte politikak	
4.2. Politika feministak	
4.3. Hizkuntz politikak – Euskara	
4.4. Ingurumenaren aldeko politikak	
5. ETXEBIZITZA	35
6. IRISGARRITASUNA, MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	38
7. EKONOMIA	41
8. ENPLEGUA	43
9. MERKATARITZA	45
10. GAZTERIA	48
11. HEZKUNTZA	52
12. KULTURA	57
13. KIROLA	60
14. UDALETXEA: PARTAIDETZA	62
15. UDALETXEA: GIZA-BALIABIDEAK	64

GOBERNUKO LEHEN 100 EGUNETAN HARTZEKO NEURRIAK

- Liberatutako zinegotzien eta alkatearen soldaten murrizketa.
- Osoko bilkurak eta sail bakoitzeko komisio informatiboak arratsalde, Santurtziarrak joateko eta parte hartzeko aukera posibilitatzeko.
- Kontu ematea: txandakako dinamika auzo guztietan, alkatearen eta zinegotzien agerpenekin, kontu emateko.
- “Auzoko zinegotziak” sortu. Auzo bakoitzak bere zinegotzia izango du, edozein arazo edo gestiorako erreferentea izango dena. Horrek ez du suposatuko zinegotzi gehiagoen liberazioa.
- Emakumeentzat segurtasun eza suposatzen dituen puntuen ezabaketa: 2018ko ikerketan seinalatutako puntuei irtenbidea ematea eta oraindik aipatu ez direnak detektatzeko eta zuzentzeko egutegi bat ezarri.
- Enplegu poltsa sortu, Udalak azpikontrataturako enpresek behar dituzten lanpostuak betetzeko.
- Egungo berdegune eta aisialdi guneen azterketa egin, biztanleen erabiltze eta gozamenerako izan daitezen, eta ez apaingarri hutsak (Olatuen Parkearen antzera).
- Eskola publikoetako patioen irekiera eskola ordutegien kanpo, modu iraunkorrean eta asteburuak, jaiegunak eta oporraldiak gehituz.
- Santurtzirako “Aparkalekuen Plan Estrategikoa” sortzeko prozesua martxan jartzea, (prozesu parte hartzaile eta deliberatiboa elkarte-ehuna, udal teknikari eta arlo honetan profesionalak diren aholkularitza kontuan hartuta)
- Euskara Batzordea berritzea eta iraunkorra izango den dinamika bat martxan jartzea, benetako hizkuntz normalizazio bat lortzeko eta gure kaleetan euskararen erabilera areagotzeko.

SANTURTZIRAKO PROIEKTU NAGUSIAK

- **SANTURTZIBUS**

- Udal autobus zerbitzua martxan jarri, auzoak elkarren artean eta erdigunearekin lotzeko. Horrez gain, zerbitzu hau urrun dauden baina oso garrantzitsuak diren lekuetara iritsiko litzateke, hala nola nagusien egoitza, Kueto eskolagunea, Balparda auzoa... asteburuetan eta jaietan gaueko zerbitzua eskainiz.

- **“PORTUA” PROIEKTUA**

- Arraun pabilioiaren ondoko pabiloi zonaldea badago Udalari emana. Bere demolizioa gauzatu ondoren, funtzio anitzeko edificioa eraikitzea proposatzen dugu: Liburutegia, Emakumeen Etxea, Gaztegunea, Kultur Etxea... estalitako frontoiaz gain.

- **ETXEBIZITZA**

- Alokairu sozialaren aldeko apustu argia egingo dugu:
 - Udalaren etxebizitza kopurua igo, urtez urte horretarako gehiago eskuratuz.
 - Arautegia aldatuko dugu udal etxebizitzaren parkea benetan alokairu sozialerako parke bat izan dadin.
 - Udalaren etxebizitzaren %40 gazteen emantzipaziotarako gorde.

- **HAUR ESKOLAK ETA IKASGELAK**

- Bi instalazio berri jarriko ditugu martxan Santurtzin:
 - Ikasgela berriak erdialdean, La Portalada gunean.
 - Haur eskola publiko bat Regales zonaldean, San Juan-Mamariga-CLH gunetarako.

SANTURTZI ETA BERE AUZOETARAKO PROIEKTUAK

SANTURTZI OSORAKO PROIEKTUAK

- Errefortzua gure kaleetako eta hiri altzarien GARBIKETAN, zaintzan eta mantenuan, bereziki auzoetakoetan. Kontzientziazio kanpainak martxan jarri (ez zikintzea, birziklatzea, txakurren gorotzen jasotzea...).
- Errefortzua zaborren bilketa eta kaleen garbiketa zerbitzuaren inspeizioan udal langileen aldetik.
- Txakurren DNA sistema ezarriko dugu, maskotak dituztenek eta animalien gorozkiak jasotzen ez dituztenek hori egin dezaten eragozteko neurri gisa. Era berean, gehien kaltetutako eremuetan pixaren aurkako inprimazioak aplikatzeko aukera aztertzea, beste udalerri batzuetan egin den bezala (adibidez, Erandion).
- GAZTEGUNEA. Jende gaztearentzako lokala sortuko dugu; aisialdia, kirola, formakuntza, informazioa, dinamizazioa... portuan, funtzio anitzeko eraikin batean.
- UMEEN AISIALDI ESTALIA: Auzo bakoitzean umeen aisialdirako zonalde estali bat izateko plana. Egokienak zeintzuk izan daitezkeen aztertze eta mailaka egiteko konpromisoa.
- HAZ: leihatila bakarreko lokalak sortu Kabiezes eta Mamarigan, Udaletxera joan beharrik gabe tramite guztiak burutu ahal izateko.

ERDIGUNEAK – SANTURTZI

- Frontoia, rokodromoa, Emakumeen Etxea, Gaztegunea eta Kultur Etxea arrantza portuko aintzineko pabilioietan, horretarako funtzio anitzeko eraikina eginez.
- Zierbenarako paseoa: Hiri altzarien eta atsedeen, babes eta gerizpe guneen hobekuntza orokorra.
- Lehendakari Agirre pasealekuan ur-laminarekin kontaktuan dauden guneak berreskuratzearen aldeko apustu irmoa egingo dugu, eta ontziolaren ingurua berreskuratzeko beharrezko urratsak ematen hasiko gara.
- Herrian sartu eta irteteko bidea portutik, ibilgailuei irekia, Santurtzi-Zierbena errepidean kamioi kopurua murrizteko.

KABIEZES

- Frontoi estalia eraikiko dugu, Ranzari parkean edo kiroldegiaren inguruan. Kokapena prozesu parte-hartzaile eta loteslearen bidez erabakiko da, auzotarrekin eta auzoko elkarteekin batera.
- Azaleko aparkalekua Ranzari zonaldean: Doako aparkamendua auzokideentzat udal garabiaren deposituaren inguruan
- Mendi Alde kalea: Eskuhartze sozio-hezitzailea, kaleen garbiketan indartzea, segurtasun gutxi ematen duten puntuei irtenbidea eman...
- Errotonda proiektua: Auzoarentzat espazio berria sortu errotondaren gainean (1200 m2), Kabiezes bi zatitan banatuta egoteari amaiera emanez.
- Bizkaia Taldea kalean birgaiketak: Plazako gunea eta Antonio Altzagarako eskailerak berrituko ditugu, irisgarritasuna bermatuz eta hiri-altzariak hobetuz.
- Kabiezeserako sarreraren (Barandiaran, Antonio Altzaga, ...) trafikoa eta bideak hobetzeko neurriak hartuko ditugu.

SAN JUAN

- Gune babestua sortu auzoan (auzoko plazan estalkia)
- Eskolak: Kultura, kirol eta osasungintzarako erabilera anitzeko eraikina: instalazioen berrikuntza, bai kiroltakoena bai eraikinarenak. Proposamenak bere baitan auzorako haur eskola har lezake, erabilera kultural eta sozialerako beste solairu bat eta nagusientzat eta osasun gunearentzat hirugarren bat.
- Irisgarritasuna: aldapak eta igogailuak jarri bere kaleetan. "Santurtzi Irisgarri 2023-2030" plan estrategikoan, San Juan auzoak lehentasuna izan behar du, bere egoera dela eta. Horretarako, lehentasuna emango zaio Txurruka Almirantea kalean igogailu bat jartzeari, auzoko bizilagunen eskaerei men eginez.
- Behin betiko konponbidea kaleen egoerari, behin eta berriro altxatu behar izaten baitira konpontzeko, bide zuloak direla eta. Horretarako auzo osoaren birgaiketa integral bat burutuko dugu.
- Auzotar eta banku entitateekin batera, auzoan kutxazain automatiko bat jartzea bultzatuko dugu.

MAHASTIAK – BULLON

- Beheko Ospitale Aldapa kaleko espaloirik gabeko gunei irtenbidea emango diegu.
- Serantes: sarbide garbiak, duinak eta nagusien egoitzaraino ongi seinaleztatuak nagusien egoitzaraino.
- Kaleen hobekuntza orokorrak: espaloiak, argiztapena, garbitasuna...
- Calasanz ikastetxe inguruko oinezkoen pasabideetan sakanguneak, ikastetxearen sarrera-irteeretan segurtasuna hobetzeko.
- Mahastiak kalean zebra-bideen kopurua handituko dugu

MAMARIGA

- La Cerrada parkean lur azpiko aparkamendua sortuko dugu.
- Serantes: Sarbide garbiak, duinak eta ongi seinaleztatuak.
- Frontoia eta atxikitutako zonaldearen gabeziak konponduko ditugu. Horrez gain, eguneroko irekiera berreskuratuko dugu, gune hau auzo osorako erabilera balio dadin, gauez itxita mantenduz.
- Auzoan pertsona nagusientzako aisialdirako gunea sortuko dugu.
- Nafarroa auzunean birgaitze lanak: Zonaldean irisgarritasuna bermatzeko plan bat eratuko dugu, hala nola zoruen eta hiri altzarien eraberritzea.
- Itsasoko Ama eta Iparragirre kaleen arteko irisgarritasuna: tarte honetan dauden 2 atarietara soilik eskaileretatik heldu daiteke. Proiektu bat burutuko dugu oztopo arkitektoniko hau ezabatzeko.
- Arraunlariak eta Paralela a Regales kaleen arteko irisgarritasuna: Paralela a Regales kalera erabateko irisgarritasuna bakarrik dago bermatuta guztiontzat Regales kaleko 10 zenbakitik, baina aldapa horren inklinazioa gehiegizkoa da. Kale horretako atarietaraino heltzea posible egingo dugu Arraunlariak kaletik, arauk ezartzen dituen ezaugarriak malda bat eraikiz.
- Mamariga Kulturgune: Sarreraren atzean den gunea irabaziko dugu alboetatik itxiz eta estaliz, eta espazioari erabilgarritasuna emango diogu, ludoteka handituz, esposizio-gela edo ikasgelak sortuz. Gainera, behar den moduan gune hau estaliz eta eurietak urak ongi bideratuz, behin betiko amaituko dira liburutegia kaltetzen dituen itoginak.

- Haur-eskola (0-3) berria sortzea, Regales / La Cerrada gunean.

LA MAGDALENA

- Lan egingo dugu Aldunditik irtenbide bat eman diezaion auzo honen inkomunikazio arazoari, Bizkaibus “3335 Sestao-Muskiz” linean urbanizazioaren sarreran geltoki bat gehitzeko.
- Herriko jaietako gazteen etxerako bidean akonpainamenduaren zerbitzura gehituko dugu zonalde hau.

ZEHARKAKO POLITIKAK:

- **GIZARTE POLITIKAK**
- **POLITIKA FEMINISTAK**
- **HIZKUNTZ POLITIKA – EUSKARA**
- **INGURUMENAREN ALDEKO
POLITIKAK**

Badaude departamentu bakarrari ez dagozkion gaiak. EHBildun uste dugu gai garrantzitsuek, politika feministek eta hizkuntza-politikak kasu, Santurtziko Udalean zeharkakoak izan behar dutela, hau da, Udaleko lan-eremu guzti-guztiekin kontuan hartu eta onartu behar dituztela bi gai hauei buruzko erabaki politiko guztiak.

Feminismoak, arrazoi nabariak direla eta, gizartearen geruza guztiak zeharkatu behar ditu. Hau da, ikuspegi feminista tramiterik txikienetik konplexuenera ezarri behar da. Hirigintzan, guztiontzat segurua izango den herria diseinatu ahal izateko. Zerga-politikan, generoaren arabera sailkatuz dirulaguntza-eskaerak, ordainagiriak... horrela zerga-sistema berdintasunezkoagoa diseinatzeko. Baita kultura eta kirolean ere, emakumeek esparru hauetan sarbide eta partaidetza handiagoak izan ditzaten sustatuz.

Euskarari, gure hizkuntzari, dagokionean, ezin dugu bere erabateko normalkuntza bilatu kultura eremutik bakarrik. Bere presentzia bermatu behar dugu, kaleetan eta instituzioan. Ezinbestekoa deritzogu abiapuntu horretatik helburua lortzen lagunduko duten ekintzak bideratzeari, besteak beste, Euskara Batzordea sustatzeari eta Santurtziko Udaleko Euskara Plana benetako gauzatzeari.

ZEHARKAKO POLITIKAK:

GIZARTE

POLITIKAK

Uste dugu gizarte-zerbitzuek zutabe izan behar dutela gure gizartean, eta eskubide unibertsal eta subjektibo bezala egituratu behar direla. Erantzukizun publiko zuzeneko modelo hurbil bat sortu behar dugu, pertsona ororen giza-eskubide guztiei estaldura emanaz, salbuespenik gabe. Parekotasun-printzipioetara eta justizia sozialera egokitzen den modeloa, ondasunak giza politiketan birbanatuz. Santurtzi modelo sozial guztiz inklusiboa duen herria izateko lan egin nahi dugu, inor baztertuta ez den tokia eta biztanle guztien eskubideak bermatuak diren tokia izanik.

Urratsak eman nahi ditugu Santurtzik gizarte-eredu erabat inklusiboa izan dezan, inor baztertzen ez duena eta bizilagun guztien eskubideak bermatuko dituen. Santurtzi bat zeinean abiapuntua ez dira “laguntzak”, pertsonen eskubideak eta beharrak baizik. Politika sozialetan beste pauso bat egin behar da, ezin ditugu nahikotzat eman diru-prestazioak. Behartsuenei arreta osoa eskaini behar diegu, gizarteratzea eta egonkortasuna bermatuko dizkiena.

POLITIKA SOZIALAK

- Giza Larrialdietako Laguntzak (GLA) : Eskubide subjektiboa dela uste dugu eta, beraz, ezin zaio inori ukatu diru faltagatik. Indartzea.
- Laguntza sozialen kudeaketa eta kontrola udalaren ardura izan behar du. Pertsonen eta beren errealitateen hitz egiten dugu eta, hortaz, Santurtzin bizi diren pertsonengandik hurbil egotea ezinbestekoa da. Beren lehen eskuko errealitatea ezagutzeak hurbiltasun hori ahalbidetzen du, eta, beraz, esku-hartze errealagoa egin ahal izatea, gaurko espediente-zenbaki sistematik urrun.
- Laguntzei buruz, horiek eskatzeko epeei buruz, kopuruei buruz, baldintzei buruz, etab. informatzeko kanpainak.
- “Gizarte-zerbitzuen gida” argitaratuko dugu, hainbat hizkuntzatan eta hizkera ulertteraza eta inklusiboan.
- Bizilagunen erroldatzea ziurtatzea, oinarritzko eskubideak eskuratu ahal izateko. “Errolda soziala” sustatuko dugu, etorkin eta asilo-eskale askok legeak duten eskubide hori mugatuta izaten baitute.
- Benetako jantoki soziala eskaintzea baztertze-egoera larrian dauden pertsonen.
- Etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxe bat sortzea, Ezkerraldeko gainerako udalekin elkarlanean.

- Baztertze zorrotzeko taldeekin kalean esku-hartzeko baliabideak eskaintzea, baita auzoetako gazteentzako prebentzio-neurriak ere.
- Gizarte Ekintza sailak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen kudeatzaile soila baino gehiago izan beharko luke. Beharrezkoa da gizarte-hezkuntza arloan esparru horretako profesionalez osatutako talde bat egotea esku-hartzeko prest: hezitzaileak, integratzaileak eta gizarte langileak.
- Gainerako sailetan bezala, sail honetan ere pribatizatu diren zerbitzuen kudeaketa publikoa berreskuratzea (etxez etxeko laguntza, Egoitzako zerbitzuak...), kalitatezko enplegu publiko sortzeaz gain, kostuak aurreztu egiten dira eta.

KULTUR ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA INTERKULTURALA

- Elkargune iraunkorrak sortuko ditugu udalerria osatzen dugun hainbat jatorri kulturaletako bizilagunen artekoak. Horrela, Santurtziren kulturartekotasunaren isla izango diren guneak sortuko ditugu, estereotipoak eta zurrumurru arrazista eta xenofoboak desmuntatuko ditugu eta kulturarteko elkarbizitza sustatuko dugu. Gune horietan parte-hartze publikoa sustatuko dugu, Santurtziko auzokideena eta udaleko eragileena.
- Elkar ezagutzeko programak (hitzaldiak, jardunaldiak, Bilbon egiten den “Munduko arrozak” edo “Bizilagunak” kultur-aniztasunean oinarritutako otorduak estiloko ekimenak antolatuz, planifikazioak ikastetxeekin lankidetzan...), jatorri desberdinetako herritarren parte-hartzea sustatuz.
- Migratuek herriko ekimenetan parte-hartzea sustatzea: jaietan, auzolanetan, ekimen kolektiboetan, gazte-taldeetan... gure herriaren parte dira eta.
- Migrazio eta Aniztasun Kulturala eta Elkarbizitza teknikariaren lanpostua sortu eta beteko dugu, pertsona etorkin eta errefuxiatuentzako harrera plana egiteko, zerbitzu sozialen gida egokituak egin ahal izateko, auzokideen arteko gatazkak koordinatu eta bideratu ahal izateko...

OSASUNA ETA ZAINZA

- Osasun eta zaintza arloetan udalerrriaren beharrianen azterketa egingo dugu, osasun-ekipamenduak diseinatu edo instituzio eskudunei eskatu ahal izateko. Osasunerako udal orientazio-zerbitzua eta politika lokaletan osasunaren ikuspuntua duten udal Planak sortu. Arnas-zentroen jarduera berreskuratu edota Eguneko Zentroen zerbitzua indartu, hauen bitartez arnas-zentroetan egiten zen zerbitzua berrartzeko.
- Hiri-eremuetan kokatutako tutoretzapeko etxebizitzaren aldeko apustu egiten dugu, irisgarriak eta Santurtziren erdigunetik hurbil, menpekotasun Lehenengo Graduako pertsonen arretarako.
- Eguneratu eta handitu egingo ditugu desfibriladore-mapa eta oinarrizko BBB ikastaroak.
- Beste haur-eskola bat sortuko dugu. Auzoen eskakizunari erantzuna bermatuko dioten zentroak sortzeari beharrezko deritzogu. Urteak dira Partzuergo publikoa hasi zela 0-3 urte bitarteko Haur Eskolak Partzuergo publikoak kudeatzen. Harrezkero, Santurtziren eskaintza Kabiezeseko Emilia Zuza eta erdiguneko Mirabueno baino ez da, ondorioz sarbidea oso mugatua eta gero eta biztanle gehiago dituzten hainbat auzo zerbitzu gabe geratzen direlarik. Horregatik beste haur-eskola bat sortuko dugu, zehazki Marmariga-Donibane-CLH ingururako, hezkuntza-erabilerarako Regalesen erreserbatutako eremuan.

ANIZTASUN FUNTZIONALA

- Hemendik 7 urtera Santurtzi inongo oztopo arkitektonikorik gabeko herria izango dela bermatzea (Santurtzi Irisgarria Plan Estrategikoa 2023-2030).
- Adin txikikoentzako aisialdi irisgarri eta integrala bermatzea (elementu egokituak parkeetan, txinboak, kirol-guneak...)
- Hezkuntza-egitasmo guztiak gauzatzeko behar beste giza-baliabide eta baliabide material egongo direla bermatzea, zertarako-eta antolatutako jarduera guztietan aniztasun funtzionala duten herritarrek parte-hartu eta horien jarraipena egiteko aukera izango dutela ziurtatzeko.
- Herri-administrazioek egiten duten zabalpen-lan guztia irisgarria dela bermatzea, bai edukia eta bai zabalpena egiteko erabiliko den euskarria (azpitolazioa, zeinuen hizkuntzan ematea, audio-deskribapena...).

ANIZTASUN AFEKTIBO-SEXUALA ETA GENERO IDENTITATEA

Santurtzi anitza nahi dugu, zeinean herritarrek harremanak dituzten, bere sexualitatea eta genero-identitatea sentitzen duten.

Aniztasunak esan nahi du, besteak beste, aukeratzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna, baita gure sexualitateari eta gure generoari dagokienean eta pertsona eta talde bakoitzak, zein bere aukeretatik, horiek bizitzeko moduei dagokienean ere. Adierazi nahi du, beraz, sexu edo genero identitatea asumitzeke dutenen sexualitatea eta afektibitatea bizitzeko “beste” modu batzuk aukeratzeko eta imajinatzeko askatasuna, baita gainontzeko pertsonen aukeratzeko askatasuna ere, modu libre eta kontzientean.

Sexu eta genero-aniztasunak esan nahi du modu irekiagoan interpretatu behar dela sexu/genero sistema, egun ezagutzen dugun ulertzeko modu nagusia gaindituz (gizon-emakume / gizonezko-emakumezko). Generoak emakumeen diskriminazioa agerian uzten digu eta agerian uzten digu esleitu ez zaien generoari dagozkion modu, sentimendu, desio edo portaerak hartzen dituztenen diskriminazioa ere.

Patriarkatuak eusten die gizon eta emakumeen arteko botere-harremanei eta sexualitate normatibo eta ez-normatiboen (sexu berekoen artekoak, bikotez kanpokoak, etab.) arteko botere-harremanei. Sozializazio sexistak eragin zuzena dauka sexualitatea, generoa eta gorputzaren garapenean; egun, ezarritakotik ateratzeak fobiak, jazarpenak eta bazterketak sortzen ditu, azken finean, diskriminazioa eta indarkeria.

Horretarako, LGTBQ+ pertsonen eskubideak bermatzeko neurriak jarriko ditugu martxan, adin txikikoei arreta berezia eskainiz, informazio eta heziketa kanpainak sustatuz, sexu-orientazioaren ondoriozko diskriminazioaren kontrako planak... Inklusio soziala eta laborala sustatzeko ekimenak ere jarriko ditugu martxan:

- Herriko ikastetxeekin batera eta lehentasunez, sentsibilizazio eta hezkidetza-neurriak sustatu, horien bitartez gizarte-kontzientzian identitatei buruzko beharrezko aldaketak sortzeko eta ikuspuntu heteronormatiboak, sexistak eta patologizatzaileak gainditzeko: sexu-orientazioak edo genero-identitateak sortutako bullyingaren aurkako sentsibilizazio eta prebentzio eskola-programak, hezkidetza-programak...
- LGTBQ+ pertsonen normalizaziorako eta ikusgarritasunerako ekimenak sustatu eremu guztietan (kulturan, kirolean, ekonomian...)
- Udala eta LGTBQ+ taldeen arteko gune eta elkarlanerako mekanismo lotesle eta iraunkorrak sustatu, talde horien beharrian eta interesak ezagutzeko eta elkarrekin definitzeko eremu publikoan garatu beharreko zeharkako estrategiak.

- LGTBIQ+ taldeentzako dirulaguntzak abian jarri, sexualitate eta generoaren araberako harreman sozialen ordenaren aldaketaren aldeko borroka eta aldarrikapen-ekimenetarako.
- Erakunde-koordinazio egokia bideratzeko protokoloak sustatu, Santurtzin sexu-identitate edo genero-adierazpenaren ondoriozko diskriminazio, jazarpen eta indarkeria kasuei aurre egiteko.
- Afektibitate eta sexu-askatasuna bermatuko dituzten ekimenak sustatu nagusien zentro eta egoitzetan.

ZEHARKAKO POLITIKAK:

POLITIKA

FEMINISTA

Udalak antolatu edo bultzatutako ekimen guztietan emakumea izan behar da erdigunean, eta, era berean, sexu banaketa bultzatzen duten jarrerek ez dute inongo lekurik izango ekimen horietan.

Horrez gain, arlo horietan hurrengo ekintzak burutuko ditugu:

BORTIZKERIA MATXISTA

- Autodefentsa feminista: Sexu erasoak identifikatu eta horiei erantzuteko gaitasunaz kontzientziazteko eta formakuntza izateko programak.
- Ahalduntzea: Emakumeok dugun berezko botereaz kontziente izateko eta kontzientzia sortzeko programak, eta ahalduntze hori praktikara eramateko ekimenak sortu eta sustatu.
- Genero-hirigintza eta herriko emakumeentzako puntu arriskutsuak: politika publikoen eraldaketa. Hirigintzatik ere aurkitu eta konpondu behar dira herrian dauden puntu arriskutsuak.
- Sexu-indarkeriaren aurkako protokoloa: partaidetzan diseinatuan, Udalaren hegemonia ekidituz eta herriko emakumeen partaidetza sustatuz, haiek baitira indarkeria mota hau pairatzen dutenak.
- Hezkidetza ezarri gizarte santurtziarraren esparru guztietan.
- Feminismoa indartu eremu pribatuetan udal-ekimenaren bitartez (taberna, saltoki eta bestelako eremuak)

ESPAZIOAK

- Santurtziko emakumeen benetako beharren azterketa egin modu partehartzailean.
- Emakumeen etxea sortuko dugu, momentu oro Mugimendu Feministaren eta emakume-taldeen partaidetzarekin: diseinuan, pleguak egitean, erabilera-ordenantzetan...
 - Izaera: Emakumeentzako kulturarteko eta belaunaldiarteko gunea.
 - Gunearen funtzioa: Hainbat ekimen eta ekintza garatzeko tresnak sortu.
 - Helburuak: Santurtziar gizartearen aldaketa feminista bultzatzea eta emakumeen eragile-sarea bultzatzea.
- Denbora Bankua sartu
 - Izaera: Kulturarteko eta belaunaldiarteko bankua
 - Funtzioa: Pertsonen arteko ezaguerak eta gaitasunak trukatzeko. Zaintzen esparrua oinarritzeko izan daiteke denbora banku honetan.
 - Helburua: Elkartasuna eta gizaharremanak bultzatuko dituen filosofia sortu kapitalaren gainetik, zaintza lanen banaketa justuago eta orekatuago bat lortzeko bidean.

SOZIO-EKONOMÍA

- Enplegu publikoa sortu zaintzaren arloan lan hauen feminizazioarekin bukatzeko xedearekin, beti emakumeen esku daudelako eta ordainsaririk gabe izaten direlako.
- Kontratazio publiko guztietan berdintasun klausulak ezarri.
- Generoz sailkatutako datuetan oinarritutako politika fiskal bat diseinatuko dugu, horretarako gizon eta emakumeen arteko politika fiskal justuago eta berdinzaleago lortzeko.

UDAL POLITIKAN PARTEHARTZE ZUZENA

- Emakume ikuspegidun aurrekontu partehartzaileak.
- Zeharkakotasuna eta emakumeen ikuspegia izango duten herri politikak eraldatu.
- 4/2005 legeak ezartzen duen moduan Udal aurrekontuaren %1a bermatzea, gizon eta emakumeen artean berdintasun politikak garatzeko.
- Udal ekimen ezberdinetan (kulturalak, kirolak...) ludoteka eta adin txikikoen zaintza zerbitzua.

ZEHARKAKO POLITIKAK: **EUSKARA**

Euskararen sustapenean ezinbestekoa da Administrazioa eta mugimendu euskaltzalea (elkartek zein norbanakoak) elkarrekin aritzea. Horretarako, Euskara Aholku Batzordea berritu eta dinamika iraunkorra izatea proposatzen dugu. Elkarlanean, beharrak identifikatu eta legealdirako plangintza garatuko du. Gainera, ESEParen betetze mailaren jarraipena egingo du eta behar balitz neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

FAMILIA TRANSMISIOA

Familiak euskararen transmisioan duen garrantziaz jabetuta, familiako kideen artean euskaraz aritzeko estrategiak garatuko ditugu:

- Jaio berria duten familiei zuzendutako kanpaina (guraso euskaldunak dituzten umeen ama hizkuntza euskara izan dadin).
- Euskara ez dakiten edo maila hobetu behar duten gurasoentzako euskara eskolak berreskuratuko ditugu.
- Familiek elkarrekin parte hartzeko ekitaldi euskaldunak lehenetsi, euskara zein gainerako sailek.
- GURASO LAGUN dinamika bultzatu BERBALAGUN ekimenaren barruan.
- Umeak eskolaz kanpo euskaraz eroso aritzeko guneak bultzatuko ditugu; adibidez, UMEENTZAKO TAILERRAK euskaraz antolatuko dira.

HELDUEN EUSKALDUNTZEA

DOAKOTASUNERANZKO URRATSAK

Berezko hizkuntza izanik, euskara doan ikasteko eta eroso erabiltzeko eskubidea dute herritar orok. Honako urratsak bultzatuko ditugu:

- Matrikulazio eta sentsibilizazio kanpainak bultzatuko ditugu.
- Udalak euskaltegietan matrikulatzen diren herritarrei matrikulen dirua aurreratuko die.
- %80ko asistentzia ez duteenei zuzenean erretiratuko die aurreratutakoa beraien kontutik.
- Aurreikusiko den diru-funtsa ez bada eskari osoari erantzuteko ailegatzeko, hainbanatu egingo da.

- Ahozkotasuna eta komunikazio gaitasuna sakontzeko BERBALAGUN programa indartuko da eta auzoetako dinamikak sustatuko dira.
- Beste lurralde batzuetatik Santurtzira etorritakoen artean sustapen kanpainak egingo dira eta erraztasunak emango zaizkie euskara ikas dezaten.

SENTSIBILIZAZIO-MOTIBAZIOA

- Gazteekin batera, beraien esparruetan euskararen erabilera areagotzeko ekintzak eta programak bideratuko ditugu.
- Euskaldun izatearen kontzientzia, euskaraz bizitzeko nahia eta gogoia elikatuko ditugu sustapen kanpainen eta ekintzen bidez.
- Euskaraz bizi diren eta bizi nahi dutenenganako erdaldunen enpatia eragiteko sentsibilizazio ekintzak egingo ditugu.

ADMINISTRAZIOA

Udalaren eginkizuna da euskaraz artatua izan nahi duen herritarraren hizkuntza eskubideak bermatzea eta gainerako eragileen aurrean eredugarri aritzea. Hori gauzatze aldera, honako neurriak garatuko ditugu:

- Administrazioak zerbitzu guztiak euskaraz emango ditu; bai udalak zuzenean eskaintzen dituenak, baita kanpo kontratazioaren bidez eskaintzen direnak ere.
- Euskara Saila sortuko dugu, gainerako sailetatik bereiz.
- Euskara hutsez jardun nahi duten herritarren datu basea sortuko dugu edo txertatu irizpide hori udal datutegietan.
- Udalean lege garapenak egingo ditugu arduradun politiko gorenak hizkuntza ofizial bihurtzeko erabil ditzaten bermatzeko.
- Administrazioko langileak egunerokoan euskaraz eroso lan egin dezaten bideak jorratuko ditugu:
 - Maila hobetu behar dutenentzako Trebakuntza ikastaro eta dinamikak.
 - Euskaraz lan egin ahal izateko aukerak identifikatu eta erabilera zirkuituak sortuko ditugu.

- Udalean erabiltzen diren aplikazio informatikoak euskaraz ipiniko ditugu.
- Euskararen Gizarte Erakundeekin harremana, elkarlana eta osagarritasuna landuko dugu Euskara Aholku Batzordean parte har dezaten bultzatuz.

AISIA-KIROLA-KULTURA

- Aisialdiak eta kirolak umeak eta gazteak euskara eremu ez formalean lantzeko parada ezin hobe eskaintzen dute. Horregatik, arlo hauetan ari diren begirale eta entrenatzaileak euskaraz aritzeko prestakuntza eta trebakuntza eskainiko dugu.
- Ume eta gazteei begirako eskaintza osoa euskaraz izatea bermatuko dugu.
- Euskarazko Zinema eta Antzerki emanaldi kopurua handituko dugu.
- Herriko kultur eragileek antolatzen dituzten ekimenetan euskararen presentzia bermatzeko bideak jorratuko ditugu beraiekin elkarlanean.

LAN MUNDUA

- Hizkuntza irizpideak ezarriko dira kontratu guztietan eta hizkuntza klausulak betetzen direla bermatzeko jarraipen protokoloak landu eta ezarriko ditugu.
- Zerbitzu publikoa emango duten enpresek administrazioaren maila berean bermatuko dituzte herritarren hizkuntza eskubideak.
- Dendari eta Ostalariekin batera, sentsibilizazio kanpainak eta berariazko ikastaroak bultzatuko ditugu.

ZEHARKAKO POLITIKAK:
INGURUMENAREN
ALDEKO
POLITIKAK

Erabakitasunez egingo dugu apustu Agirre Lehendakaria pasealekuaren ur-laminarekin ukipen-eremuak berreskuratzearen alde, eta ontziolaren eremua berreskuratzeko beharrezko pausoak egiten hasteko ere.

Gure inguru naturalarekiko errespetua bermatzeko kontrol zehatza egingo dugu eta beharrezko neurriak hartuko ditugu: Ballonti erreka (urteetan El Arbol poligonoko zenbait enpresaren isuri ilegalak jaso zituen) edo Serantes mendi-magaleko zabortegi ilegalak bezalakoak ezin dira berriz gertatu.

Etxe-Uli hondakindegian lurperatutako Lindano tonak garbitzeak lehentasuna izan behar du. Horregatik, zonaldea zigilatze eta Ballonti erreka produktu arriskutsu horren sartzeak bukatzen direla ziurtatzeko Eusko Jaurlaritzak burutu behar duen proiektuaren jarraipen zehatza egingo dugu.

Fibrozementu (uralita) hondakinak dituzten guneak antzemateko eta garbitzeko plana indarrean jartzea.

Kontuan hartzeko beste gai bat Portura iritsi eta pasatzen den material kantitatea da, haietariko asko aire zabalean gordetzen direlarik. Udalak Portuan gertatzen den guztiarekin duen onargarritasunari amaiera eman behar zaio, presio soziala eta politikoa eginez, Portuak gure herriarekiko duen zor historikoa ordain dezan.

Espezie inbaditzaileen kontrako neurriak hartuko ditugu (panpako lezka, liztor asiarra...).

Hiri-baratzak: Ekimen honi bultzada emango diogu, kokapen berriak bilatuz eta bere erabilera sustatuz.

BERDEGUNEAK

Gaur eguneko berdeguneak topagune eroso bihurtzeko behar diren hobekuntzak: azpiegiturak, altzariak, gerizpe guneak eta batez ere espazio hauen garbitasuna indartuko dugu.

Berdegune gehiago sortzearen eta haien erabilgarritasunaren aldeko apustua egingo dugu, ez daitezela apaingarri hutsak izan.

“Parke bertikalak” (Patronatoa, La Cerrada...) egokitu egingo ditugu: ezpondetan harmaila zabalak sortuko ditugu eta, ondorioz, aprobetxagarriagoak eta irisgarriagoak izango dira.

SERANTES MENDIRAKO PLAN BEREZIA

Serantes mendia gure naturgunerik garrantzitsuena da, eta, beraz, neurriak abiarazi behar ditugu bere babeserako. Biodibertsitateko eta aisialdiko leku bat da, eta, hortaz, garapen sozioekonomikorako espazioa izan behar du, aukera handiak dituelako.

Mendia bultzatu behar da, bisitaldi gidatuen programak indartuz, eta garrantzitsutzat jo bere faunaren eta floraren balioa eta gotorlekuaren historia jakinaraziz.

Ezinbestekoa da gotorlekuaren “lan bukatugabea” konpontzea, eta horretarako berritze lanak burutuko ditugu. Horretarako, beste instituzio batzuekin batera (Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) Serantes Mendiaren Interpretazio-Zentroaren sorrera bultzatuko dugu. Bertatik inguruaren flora, fauna eta historia erakutsi, ikasi eta babestu ahal izango dira.

Espazioa ordenatzea eta hura arautzea beharrezkoa da:

Erabilerak mugatzea, babesteko eta birlandatzeko espazioak definitzea. Bideen markaketa mendiko bizikletetarako (BTT), zoruaren higadura eta oinezkoentzako eragozpenak ekiditeko.

Gaurko arazoak txikiagotzea edo desagerraraztea:

- Isurketak
- Lur publikoen okupazioa
- Lursailen jabeak edo haien bizilekua ez ezagutzea
- Errenta eta alokairuak ez ordaintzea
- Udal-utzikeria
- Txabolismoa
- Abere askeak
- Bandalismoa

HONDAKINAK

Kutsatzea ez da eskubide bat, eta etorkizunerako gure helburuak ZERO ZABORRA izan behar du, birziklatzeen ehunekoak handitzeko beharrezko pausoak lehenbailehen emanez. Hartarako, hainbat kontzientziazio eta praktika-dinamika abiaraztea beharrezkotzat jotzen dugu:

- Edukiontzia marroien erabiltzaileek zabor-tasa txikiagoa ordaintzea.
- Hondakin organikoen bilketa-ohitura elikadura-dendetara eta saltoki handietara zabaltzea.
- Txandakako garbigune mugikorra auzoetatik.
- Herriko eskoletan zehar kanpainak.
- Trukerako guneak Garbigunean edo beste zentro batzuetan.

Horretaz gain, beharrezko ikusten dugu pausoak ematea zabor-bilketaren zerbitzua berriro ere publikoa izan dadin, zuzenean Udalak eta udal-langileek kudeatuz, gastuak txikiagotzeaz gain, kalitateko enplegua sortzen delako. Beste kontu askoren artean, uste dugu bilketa-kamioiek elektrikoak izan behar dutela, zarata eta kutsadura txikiagotzeko.

ENERGIA – TRANTSIZIO EKOLOGIKOA

Ezkerraldea, Santurtziren eskualdea, energia-kontsumo handia duen eremua da, biztanle-dentsitatearen eta industria-ahalmenaren ondorioz. Energia-kontsumo hori murriztearen erronkari eutsi behar diogu eta kontsumitzen dugun energiaren parte bat berriztagarrien bidez nola sortu bilatu behar dugu.

Horregatik, udalaren jabetza diren eraikin guztietan xafla fotovoltaiakoak ezartzen jarraituko dugu, eta prozesua azkartu egingo dugu.

Gaur posiblea da enpresa energetiko handietatik deskonektatzea eta energia berriztagarrien aldeko apustu egitea. Proposamena hau da: dauden neurri guztiak aztertzea udalak eta herriak kontsumitzen duen energia oro energia berriztagarria sortzen eta kontsumitzen duten eragileei kontratatzeko. Gainera, proposatzen da santurtziarren artean eragile hauen gaineko kontzientziazio-kanpainak abiaraztea.

Apustu irmoa egingo dugu Komunitate Energetikoen sorreraren alde, partikularrek sortu ahal izateko erraztasunak emanez.

INGURUMEN-OSASUNA

Zarataren Aurkako Ekintza Plana egingo dugu: santurtziar askok hainbat arrazoiren ondorioz (autopista, errepideak, Portua...) ingurumen-zarataren ondoriozko eragozpenak pairatzen dituzte egunero. Plana burutu beharra dago; batetik, zarata-guneak antzemateko eta bestetik, eragozpenak zuzendu edota leuntzeko neurriak martxan jartzeko (asfaltatze fonoxurgatzaileak, pantaila akustikoak, Portuari eskatu atrakalekuan dauden ontziei argi-konexioa ematea bezalako neurriak har ditzan...)

ETXEBIZITZA

Alokairu sozialaren aldeko apustu argia egingo dugu:

- Arautegi justu eta eraginkorra sortu udal-etxebizitzan erabilera kudeatzeko, etxebizitza horien %40 gazteentzako eta etxebizitza lortzeko zailtasun zehatzak dituzten beste talde batzuentzako gorde eta baldintzak betetzen diren maiztasunez berrikusi.
- Etxebizitza hutsen errolda sortu eta bere etxebizitza hutsa alokairu sozialean ematen dutenentzat laguntza\subentzioak udal zerga eta tasetan dituen politika fiskala.
- Eraikuntza berriak: uste dugu Santurtzin etxebizitza gehiagorik ez dugula behar, baina HAPOn aurreikusten direnetan, Udalari egokitu behar zaio legez dagokion %15, etxebizitza bihurtuta eta udalak alokairu sozialean eman.
- Alokairu sozialerako udal etxebizitzak lortzen joateko konpromisoa, urtez urte, horretarako behar den aurrekontu saila eginez.

Birgaitze plan integrala diseinatu eta garatuko dugu, auzoen beharrianak kontuan hartuko dituen. Etxebizitzan birgaitzea sustatuko dugu, energia-efizientzia, ingurumen-zaintza, irisgarritasuna eta seguritatea kontuan izanik eta COVID-19 pandemiak erakutsitakoak ezarri.

Birgaitzetarako dirulaguntza-plana abiaraziko dugu, bai birgaitze integraletarako bai eraikin zeharren irisgarritasun eta energia-efizientzia lortzeko.

Nagusien zaintza-beharra asetuko dituen udal etxebizitzan politikaren aldeko apustua, hala nola zaindutako etxebizitzak I graduako menpekotasuna dutenentzat edota belaunaldien arteko erkidego-etxebizitzak, nagusiki erdiguneko zonalde hurbil eta irisgarrietan.

Bitartekotza-plana abiaraziko dugu, gazteen emantzipazioa errazteko eta nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko asmoz. Hala nahi dutenen artean, plana bitartekoa izango da gazteen eta dependentzia gradutik gabeko eta bere jabetzako etxebizitzan bakarrik bizi diren nagusien artean, gela libreen alokairua eta ezarritako arauen bitartez.

Santurtzi etxegabetzerik gabeko herria: kaltetuentzako lege, politika eta gizarte babesa, eta bitartekaritza zerbitzua.

Etxebizitza hutsak mugiarazteko neurriak hartuko ditugu: Etxebizitza mailegatzeko programak eta etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko pizgarriak, bai eta gainordainak ere, arrazoi justifikaturik gabe geldirik daudenei, ez zigortzeko, baizik eta etxebizitzaren erabilgarritasuna bermatzeko.

IRISGARRITASUNA, MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

“Santurtzi Irisgarria 2023-2030” Plan estrategikoa

- Alderdien, taldeen eta auzo-elkarteen arteko lan mahaia osatu. Gune ez irisgarrien lehentasunak zehaztu eta hauen konponbiderako egutegia zehaztearen konpromisoa, horretarako urtero aurrekontu-saila egokituz. Mahai honek lanen jarraipena (auditoria) egingo luke, aurretik, bitartean eta hauek bukatutakoan.
- Udal lokal eta bulegoen irisgarritasunari buruzko azterketa sakona egingo dugu, eta akats horiek konpontzeko jarduketan egutegia ezarriko dugu. Pertsona guztientzat irisgarria den Santurtzi bat nahi badugu, erakunde gisa, ezin dugu onartu udal-jabetzako espazioek oztopo arkitektonikoak izatea hori eragozteko, eta, neurri premiazkoago gisa, igogailu bat jarriko dugu liburutegi nagusian.
- Balpardako eta El Árbol poligonoko sarbideak txukunduko ditugu, guztiz irisgarriak izan daitezen eta inguruko espazio guztietara (beilatokia, jarduera ekonomikoak, aisialdirako guneak) iristeko oztopo arkitektonikorik egon ez dadin.
- Traba arkitektonikoak kentzeko eta igogailuak jartzeko diru-laguntzak eman auzo-komunitateei eta erabilera publikoko guneei.
- Gune irristakorren arazoak konpontzeko plan berezia.
- Hiri-autobusa: San Juan auzoa- zaharren egoitza. Autobus honen ibilbidea hurrengo hau izango da:
 - SAN JUAN – MAMARIGA – GERNIKA PARKEA – ANBULATEGIA – KABIEZES – KUETO – NAGUSIEN EGOITZA
- Foru Aldunditik La Magdalenako inkomunikazioari irtenbidea emateko lan egingo dugu, Bizkaibuseko 3335 Sestao-Muskiz linearen geltoki bat barne, urbanizazioaren sarreran.
- Mugikortasun lehentasunak ezarri: oinezkoa, lehen!
- Barne eta kanpoko mugikortasun plana: Bizikletak jolaserako espazioa gaintitu behar du garraiobide orokor bihurtzeko. Santurtzi, etorkizunean, eskualdeko gainerako herriekin lotuko duen barneko bidegorri sare bat egiteari ekin behar diogu, hiri-sarearen bidez eta ez periferiaren bidez, eta bizikleta garraio operatibo gisa erabiltzeko aukera bermatuko dugu.
- Udalerrri osoan bizikletentzako aparkaleku gehiago sortuko ditugu.

- Disuasio-aparkalekua Kabiezesen, Metroaren erabiltzaileentzat. EHBilduren proposamena Udalak eta Metrok onartua izan zen, beraz, lehenbailehen indarrean jartzea eskatu behar dugu.
- Paralela a Regales eta Arraunlariak kaleen arteko irisgarritasuna: Regales kaleko 10. zenbakiko atariaren izkinatik baino ez dago ziurtatuta Paralela a Regales kalerako irisgarritasun osoa, baina aldapa handiegia du eta horrek arriskuak dakartza. Arraunlariak-etik kale horretako atarietara sartzeko aukera emango dugu, eta lehendik dauden eskailerei irisgarritasun-arauek eskatzen dituzten maldak betetzen dituen arrapala atxikiko diegu.
- Arrapalak edo igogailuak jarriko ditugu San Juan auzoko kaleen artean. Santurtzi Irisgarria 2023-2030 Plan Estrategikoaren barruan, San Juan Auzoak lehentasuna izan behar du, bere egoera dela eta. Horretarako, Txurruka kalera sartzeko igogailu bat jarriko da, eta auzoko bizilagunen erreklamazioei erantzungo zaie.
- Informazio-kartelak jarriko ditugu, udal-lokal eta -espazioetarako (liburutegietarako, kirol-zentroetarako...) irisgarritasun kognitiboa bermatzeko.

EKONOMIA

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

Aurrekontuak urte guztiaren konturik garrantzitsuena dira, eta zentzu horretan uste dugu inbertsioen % 100a nora doan era parte-hartzaile batean eztabaidatu behar dela. Horretarako, beharrezkoa da eztabaida-guneak abiaraztea, bai gaiaren araberrakoak, bai auzoen araberrakoak.

Gainera, parte-hartzea ahalik eta modu zabalenean erraztu eta ziurtatuko dugu, auzo guztietara bozketa-mahaiak eramango ditugu, aurrekontu-oreka eta auzoen arteko proposamenen oreka bidezkoa ziurtatuko dugu, eremu jendetsuenek edo gazteenek (hau da, mugitzeko erraztasun handiagoa dutenak, telematikoki bozkatzeko gaitasun handiagoa dutenak) ekimen guztiak beregana ez ditzaten.

GUTXIAGO DUENAK GUTXIAGO ORDAIN DEZALA:

MAILAKAKO ZERGA-POLITIKA

OHZ ordaintzeko laguntza progresiboen neurria, aurreko urteetan abian jarritakoa, berreskuratuko dugu, familia-egoeraren eta etxebizitza bakoitzaren diru-sarreraren arabera, eta neurri hori beste zerga eta udal-tasa batzuetara zabalduko dugu.

GASTUAREN ARRAZIONALIZAZIOA

- Alkatearen eta liberatutako soldatak nabarmen murriztea.
- Konfiantza-karguak gutxienengora murriztea eta horien soldatetan murrizketa nabarmena ere bai.
- Pribatizazioari ez: pribatizazioekin bukatzeko, kalitatezko zerbitzu publiko sendo batzuen aldeko apustu egiteaz gain, beharrezkoa da pribatizatu diren zerbitzuak berriro ere Udalak zuzenean kudeatzea udal-langileekin. Gastuak txikiagotzeaz gain, kalitateko enplegua sortzen da.

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

Modelo ekonomiko berria behar dugu, zeinetan pertsona bezala eta herri bezala ditugun beharrak lehentasuna izan behar duten, enpresa handien beharren aurretik. Horretarako, planteatzen dugu ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko apustu garbia egitea, baita Udalean ere, kooperatibismoaren edo banku etikoen aldeko pausuak emanez, besteak beste.

ENPLEGUA

UDAL LAN-POLTSA

Santurtziko pertsona langabetuentzako lan-poltsa bat sortu behar da, Udalaren zuzeneko eta zeharkako beharrak estaltzeko, baita herriko enpresen artean, Portuan eta eskualde guztian ere.

Udaleko pertsona langabetuak zuzenean kontratatzea (poltsa horren bidez) lan publikoetarako eta udaleko beste zerbitzu batzuetarako, baita Udalak azpikontrataturako enpresetan ere.

KONTRATU PUBLIKOETARAKO PERTSONA LANGABETUEN

KONTRATAZIOA

Klausula sozialen bidez, azpikontrataturako enpresek behar batzuk dituzte: pertsona langabetuak kontratatzea, lan baldintza duinak bermatzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea, baita hainbat ingurumen-irizpide ziurtatzea ere.

TOKIAN TOKIKO INDUSTRIA POLITIKA

Apustu irmoa egingo dugu aktibitate ekonomikoetarako erreserbatutako lurzoruak plataforma logistikoetara edo merkatal-gune handietara bidera ez daitezen eta ingurumenarekiko errespetagarriago diren industria eta teknologia arloetako aktibitateak kokatzeko, Santurtzira lanpostuak hurbilduz eta lantokietara bidaiak gutxituz.

MERKATARITZA

Herriko merkataritza eta ostalaritza funtsezko sektorea dira gure herrirako; enplegua sortzen du, herria egituratzen du, eta herriari eta auzoei bizitza ematen die. Beraz, sektorearekin erabateko elkarlana funtsezkoa da.

- Birgaitzerako, profesionaltasunaren hobekuntzarako eta denden modernizaziorako diru-laguntzen plan estrategikoa.
- Urtean zehar herriko merkataritzaren aldeko kanpainak indartzea, bereziki data seinalatuenetan, kulturako, kiroltako eta aisialdiko dinamikak indartuz, herrian kontsumitzea sustatzeko.
- Ahal den neurrian, merkataritza-gune handiak saihestea. Proposatzen dugu horretarako lur publikoak ez uztea, ezta birkalifikatzea ere, eta indarrean dagoen araudiaren interpretazio ahalik eta murriztaileena egingo dugu, merkataritza-instalazio handi berriak onartzerakoan.
- Neurri zehatz moduan, esate baterako, Udalak antolatzen dituen sari-banaketa guztietan, dirua eskutan eman ordez, herriko saltokietan erosteko txartelak ematea.
- 2019an eremu potentzialei eta lokal hutsei buruz egindako azterketaren garapena, gure kaleak biziberrituko dituzten saltoki berriak ezartzea sustatzeko.
- Hutsik dauden lonjei irteera ematea: urtebete baino gehiago itxita daramaten lokaletan jartzen diren saltokiak alokatzeko laguntzen lerroa eta pisuetatik lonjetara jarduera profesionalak eramateko programa.
- Santurtziko saltokien eta zerbitzuen plataforma bat (erakusleiho birtuala) sortzea, bai online salmentarako, bai tokiko negozioen direktoriorako.
- Udalaren eta merkatarien artean etxez etxeko banaketarako tokiko zerbitzu bat sortzea, printzipioz eta proba pilotu gisa adinekoak, mendekotasuna dutenak edo mugikortasun murriztua dutenak artatzeko.
- Santurtziko artisau eta merkatarien eskura coworking bulegoen eta lantegien lokal bat jartzea, lokal propiorik gabe eta beren produktuak eta zerbitzuak Internet bidez eskaintzen dituztenekin, etorkizunean beren saltokiak modu fisikoan sortu ahal izateko bultzada gisa balio diezaieten.
- Saltokien arteko elkarlanerako planak egitea eta garatzea (gastuak, azpiegiturak, deskontuak, eta sareak partekatzea...). Kasu honetan, Udalaren papera izango litzateke sistema eraginkorrak antolatzea, elkarlan-sare hauek eraginkorrak izan daitezen.

Horretarako, erreminta informatikoak edo bestelakoak ezarri behar dira, esaterako, gauza zehatz batean interesatuta dagoen merkatariak beste merkatari batzuen berri jakin ahal izango du, gastuak, lana edota beste kontu batzuk partekatzeko. Adibideak:

- Gordailuak eta fidantzak: zenbait banatzailek eta hornitzailek eskatzen dituzte, eta gastu hau parteka liteke interesa duten bi saltoki edo gehiago harremanetan jartzen badira.
- Hainbat saltokiren artean biltegiak partekatzea.
- Handizkako erosketak: eskaerak egiteko hainbat saltoki elkartzea, deskontu handiagoak bilatzeko.
- Saltokien arteko deskontu-txartelak: saltoki batean zerbait erostearen truke, beste batean erosteko deskontu-txartela.
- Publizitatea: poltsak, diptikoak, kartelak, publizitatea gutunontzietan... Mota honetako ekintzetan gastuak hainbat saltokiren artean partekatzea, merkeagoa izan dadin.
- Saltokiak elkartzea etxez etxeko banaketa egin ahal izateko.

Gainera, merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorerako mota guztietako izapideak arintzea helburu duen neurri bat jarriko dugu martxan: leihatila bakar batetik koordinatzea saltokiaren ohiko izapideak (irekierak, lizentziak, eskualdaketak...).

- Hainbat arrazoi direla medio (denborarik, baliabiderik, bitartekorik edo ezagutzarik eza), merkatari edo ostalari txikiek oztopo ugari izaten dituzte hainbat izapide egiteko, hala nola irekierak, lizentziak edo eskualdaketak. Horregatik, Leihatila Bakarra jarriko dugu martxan, saltokiei erraztasunak emateko, modu bateratu eta seguruan, Udaleko edo Udaleko arlo desberdinen eta beste erakunde batzuen arteko interakzioa eskatzen duten izapideak egin ahal izateko.

GAZTERIA

"Santurtziko gazteok ez gara umemokoak, ez gaituzte eskutik eraman behar, etorkizun bat behar eta nahi dugu, eta gu geu gara eraiki behar dugunok. Eta horretarako, ezinbestekoa da guztion partehartzea. Hamaika dira aurrez aurre aurkitzen ditugun arazoak: gure ikasketak aurrera ateratzeko zailtasunak, lan mundura heltzeko, independizatzeko... Horiek guztiek gure herriko etorkizuna baldintzatuko dute, beraz, konponbideak martxan jarri behar dira jada!"

Hau da EH Bilduren oinarri sozialaren gazteriak egiten digun hausnarketa, Santurtziko gazte gehienek artean ere konpartitua. Erreflexio horietatik datozen proposamenak atera ditugu:

GAZTEGUNE ETA ENTSEGU GELAK

Gazteontzako gunea sortu: Elkartzeko gunea izango da. Erabilera eta funtzioak herriko gazteok parte hartuz garatuko dugu. Aisialdia, kirola, kultura, jolasak, dinamizazioa...

Era berean, Santurtziko musika taldeentzako entsegu gelak irekitzea eskatzen dugu, portuan proposatzen dugun erabilera anitzeko eraikinean.

ETXEBIZITZA

Alokairu soziala bultzatu eta indartzeko proposamenen artean, politika hauen etxebizitzaren ehuneko jakin bat (%40 baino gutxiago inondik inora) gazteentzat izango dira, bizitza subiranoa bultzatzeko asmoz.

ENPLEGUA

Etxebizitzaren arazoarekin gertatzen den bezala, lan arloan proposatzen ditugun neurrietako bat honakoa da: sortuko diren lanpostuen ehuneko jakin bat (%40 baino gutxiago inondik inora) gazteei zuzenduta egongo dira, ikasketak bukatutakoan lehen enplegua lortzeko garrantzia emanik.

AUTOGESTIONATUTAKO PROIEKTUAK

Santurtzin bertan, autogestioan oinarritutako eskarmentu izugarria dugu, eta Udaletik ezinbestekoa da elkarlana bultzatzea eta sostengua ematea egitasmo hauei, eren autonomia errespetatuz.

Gainera, bestelako ekimen mistoak martxan jartzea posible delakoan gaude. Udalak lagundu dezake lokalak, azpiegiturak edo dirusarrerak eskainiz eta gazteek garatu ahal izango dituzte aisialdi, kultura, musika edo kirol ekimenak modu independentean.

GAZTE TXARTELA

27 urte beherako gazteentzako Gazte Txartela sortuko dugu (eta langabetuentzako beste bat ere bai). Honen bidez, kiroldegian, zineman, antzerkian eta herrian antolatutako gainontzeko ikuskizunetan... deskontuak izango dituzte.

GAZTE BOX

GAZTEBOX berreskuratuko dugu. Gazteentzako eredu eta laguntzabide izan behar du bulego honek, lan, ikasketa eta giza bizitzan lagunduko duena. Horretarako, enpleguaren, aisialdiaren, kulturaren, kirolaren inguruko informazioek eta genero berdintasuna, drogak, sexualitatea, harremanak landuko duten ekimenek euren lekua izan behar dute bertan. Herriko gazteek partehartuz garatu eta aurrera eraman behar dira Gazteboxeko ekimen guztiak.

LIBURUTEGIA ETA IKASKETA GELAK

Herriko liburutegien lokalak zein ordutegiak hobetu ahal direla uste dugu. Adibide gisa, santurtziar askorentzat ez da aukera bat liburutegi nagusira joatea, hainbeste arrazoiengatik: irisgarritasun arazoak (eskailerak), insonorizazio falta, CO2 gehiagoaren presentzia, eta abar.

Honetaz aparte, uste dugu ikasketa gelak jarri behar direla martxan Santurtziko auzo gehienetan, erdiguneko liburutegiaren masifikazioa ekiditeko eta pertsona guztiei erabilera errazteko. Gainera, ordutegi aproposak ezarri behar dira, batez ere azterketa garaian: goizeko 8etatik gaueko 21:00etara.

Liburutegien altzairuen berrikuntza egin behar da, modernizazioa bultzatzeko eta ergonomia bermatzeko, bai eta espazioak hobetzeko neurriak: argiak, isolamendu akustikoa, gailu elektronikoetara eta Internetera konexioa...

La Portalada gunean jarriko dugun ikas-geletarako lokalaz gain, horretarako beste bat jarriko dugu martxan, Mamariga Kulturguneko sarreraren atzealdean, hain zuzen. Espazio hori itxiz eta estaliz, gainera, liburutegian dauden itoginen arazoak konponduko dira.

LONJAK ETA KOADRILLAK

Gero eta indibidualistago bihurtzen gaituen gaur egungo gizarte ereduaren aurrean ekimen eta ekintza partehartzaileak martxan jartzea proposatzen dugu, non gazteok parte hartuko dugun herriko gizarte, kirol edota kultur bizitzan, lehenengo eskutik eta ahots propioarekin. Uste dugu beste herri batzuetan egin diren ekimen batzuk, “lonjeroak” eta koadrilak batu direnak herri jaietan edo auzolanean amankomunean lan egiteko, Santurtzirako beharrezkoak direla eta hemen ere bertan aplikatu daitekeela.

ESKOLA PUBLIKOETAKO PATIOAK, HERRIARI IREKIAK

Kirolaren praktika eta aisia bermatzeko, eskola publikoetako patioen kirolguneak irekita mantentzeko neurriak hartuko ditugu, modu iraunkorrean eskolaz kanpoko ordutegietan, lan egunetan zein jai egunetan.

HEZKUNTZA

Hezkuntza herritar guztiok dugun eskubide indibidual eta kolektiboa ez ezik, arlo ezin garrantzitsuagoa da gure herriaren garapen eta etorkizunerako. Horregatik, uste dugu gizartean eta administrazioetan funtsezko tokia izan behar duela eta lehentasuna eman behar zaiola hezkuntza sistema propioa, kalitatezkoa, parekidea eta euskalduna lortuko bada.

Gaur egungo egoera ikusita, ezinbestekoa da helburu zehatzak ardaztea eta hurrengo urteotan eurok jorratzen jarraitzea.

HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOA

Inposizioei aurre egin eta Euskal Herrian hezkuntza sistema propioa izatearen aldeko apustua egingo dugu, tartean diren eragile guztiek adostutakoa, non euskal kurrikulumak lehentasuna izango duen. Gurea eta urrunagokoena irakatsiko duen hezkuntza bultzatuko dugu, ikasle guztiak eleanitzak izango direla eta parte-hartze demokratikoa izango duela bermatzen duen hezkuntza, zentroein autonomia emanaz nork bere herriaren edo auzoaren errealitatearen arabera joka dezan.

Horrez gain, uste dugu Santurtzik bere kurrikulum propio eta espezifikoa behar duela izan, gure seme-alabek ikas dezaten, baina betiere Santurtziren iragana, ohiturak eta bizimoduak ezagutuz, Kultura sailarekin eta planteatzen dugun Santurtziko Memoria Historikoaren institutuarekin lankidetzan egina, aurrerago “KULTURA” kapituluan azalduko dugunean.

ESKOLA MAPA

Guztiz beharrezkoa da gure herriaren errealitatea islatuko duen eskola-mapa berria izatea, herritarren beharrak aldatu egiten baitira auzoek aurrera egiten duten heinean. Ezinbestekoa da eskola-mapa eguneratua eta ikasleei eta familiei egokitua izatea. Santurtzin ez dago eskaerari erantzuteko moduko hezkuntza-eskaintzarik, Mamariga edo Serantes eskoletan ez dago plaza nahikorik, Emilia Zuza eskolara heltzeko arazoak daude...

Gure ustez, prozesu parte-hartzailea jarri behar da abian, eta hezkuntza-komunitateko eragile guztiek parte hartu gaur egungo Santurtziri egokitutako eskola-mapa bat egiteko. Horretarako zera proposatzen dugu, Udalak hezkuntza komunitatearen esku behar diren baliabideak, azpiegiturak eta dirua jartzea prozesu parte-hartzaile bat abian jar dadin, eta prozesu horretan erabakitzen dena betetzeko konpromisoa hartzea.

MATRIKULAZIOA

Matrikulazio bulego bakarra sortuko dugu, ikasleen aniztasuna zentro guztietan berdintasunez banatu dadin, segregazioa saihestuz eta hezkuntza arloan egoki jokatzuz.

ZERBITZUAK ETA AZPIEGITURAK

Eskola guztietan behar bezalako ekipamendua izango duten eraikin eta jantokiak mantenu zuzena egingo da: egoera aztertu, lehentasunak ezarri...

Eskolatik bertatik kudeatutako jantokiak behar dira, elikadura-burujaitez bideratutako baliabideak eskainiko dituztenak.

Irisgarritasun-planak, oztopo arkitektonikoak eta larrialdi-planak aztertuko ditugu.

Oraindik estalkirik ez duten eskoletako jolastokiak estaliko ditugu.

Copyrightik gabeko eskola digitala sustatu nahi dugu, bai eta herriko eskola publiko guztien arteko harremana ere Berritzegunearen bidez, gure gertuko errealitateari begirako esperientziak eta material didaktikoa partekatze aldera, liburu tradizionalaren eta argitaletxeen monopolioaren alternatiba gisa.

Konfinamenduak agerian utzi zuen Santurtziko familia askoren baliabide falta teknologiaren arloan, eskolak telematikoki eman behar izan zirenean. Era berean, ikusi zen guraso askok zailtasunak zituztela seme-alabei ikasketetan lagundu ahal izateko, familia horien jatorria eta hizkuntzaren ezagutza edo ohitura falta zirela eta. Hori dela eta, garrantzitsua iruditzen zaigu premia horiek garaiz antzematea eta Udalak goi-mailako erakundeen laguntzak edo bekak areagotzea (ikaskuntzarako gailu elektronikoak eta eskola-materiala erostea, hizkuntzarekin laguntzea...).

Zentroen instalazioa herriko taldeen esku jarriko dira jarduketa-protokolo baten bitartez, bai eta eskola guztietako jolastokiak zabaldu ere tarte ez lektiboetan.

Azpiegituretan dauden beharrei epe laburrean erantzun eman ez ezik, Santurtziko hezkuntza-mahaian planifikazioa ere adostu egingo da eskola-mapa hobetze aldera.

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Udalak ikasleei begira antolatzen dituen jarduera guztiak euskaraz direla ziurtatu nahi dugu: musika, dantza, antzerkia, teknologia berriak, kirola, jarduera ludikoak (jaiak, udalekuak...)...

Dirulaguntzen lerroak sortuko ditugu, familien egoera oztopo izan ez dadin ekintza horietara iristeko.

Eskola publikoekin eta haien Ikasleen Familien Elkartekin lankidetzan, kirol eta kultur jardueren plan integral bat sortuko dugu. Udalak kontratazioen kudeaketa eskainiko du, baita autodefentsa feministako, hezkidetza eta aniztasun afektibo-sexual eta genero-identitate programak ere gazteentzat.

Jarduerak Euskal Herriko kultura landuko dutela eta euskaraz izango direla bermatuko da.

Bereziki jarduera eta kirol gutxituak sustatuko dira, bai eta gure tradizio eta kulturarekin lotutakoak ere.

Jarduerak inklusiboak eta ez-sexistak izango dira.

Bizimodu eta ohitura osasungarriak sustatzetik komunitate bat eratzerako bidea jorratuko dugu.

Bereziki zainduko da jolastokien erabilera ez dela sexistarik izango.

UMEENTZAKO AISIALDI-LEKUAK OPORRALDI GUZTIETAN

Lan eta familiaren kontziliazioa errazte aldera, umeentzako aisialdi-lekuak sortzea proposatzen dugu eskola-oporraldi guztietan (udan eta Aste Santuan egiten direnen estilokoak), Gabonetako oporretan gurasoek seme-alabak zaintzeko gorriak ikusten baitituzte, lan-ordutegia dela eta.

Dirulaguntzen lerroak sortuko ditugu, familien egoera oztopo izan ez dadin udaleku horietara iristeko.

HEZKUNTZA KOMUNITATEA

Udal Eskola Kontseiluaren sorrera bultzatuko dugu. Santurtziko ikastetxe guztietako ordezkariak eta haien familia- eta ikasle-elkartek, irakasleek eta zuzendaritzek osatuko dute.

Familiek zentroen funtzionamenduan parte-hartze demokratiko eta aktiboa izatea sustatu nahi dugu, inplikazioa eta irakasle eta zuzendaritza taldeekiko lankidetzak bultzatuz zentroaren plangintza egitean. Horrez gain, balioei eta orokorrean kurrikulum eta hezkuntzari ez ezik, inguruarekiko harremanari (auzoa eta kultura- eta kirol-elkarte) eta eskolaz kanpoko ekintzen plan integralari ere arreta berezia jarri behar zaiela uste dugu.

Gurasoak euskalduntzeko planifikazio (programak) eta laguntzak eskainiko ditugu, hizkuntza eta kultura kontzientzia garatzeko transmisore gisa. Familian jarduerak euskaraz egitea sustatuko duten programak indartu nahi ditugu: guraso eta seme-alaben artean, guraso-lagun...

Bigarren Hezkuntzako ikasleak izate aktibotzat hartuko dira, udalaren egitasmoetan euren parte-hartzea sustatuz.

Ikasle-taldeekin harremana izan nahi dugu, bai eta baliabideak eskaini ere zentroaren, auzoaren eta udalaren egitasmoetan euren jarduerak gauzatu ditzaten.

Adin txikikoak lasaitasunez eskolara haiek bakarrik joan daitezen ibilbide seguruak sortuko ditugu, horretarako gizarte-sarea (merkataritza, elkarteak, familiak, ...) inplikatzuz.

KULTURA

Euskal herriak historikoki bere sustraiak, ohiturak eta historia ukatuak izan ditu, beraz, herrian euskal kultura sustatzearen aldeko apustua egiten dugu. Azken urteotan, aurrerapauso bat eman dugu Euskal Herriaren eraikuntza nazional eta sozialean, eta datozen lau urteetan gure kultura defendatu eta garatuko dugu Santurtzin, eta, gainera, hainbat dinamika jarriko ditugu abian, Santurtzin bizi garen beste jatorri batzuetako pertsonen kulturak ezagutu eta zabaltzen laguntzeko.

- Egiteko modurik bada, herritar eta eragileekin elkarlanean arituz izango da.
- Horretarako, udal baliabideak haien esku jarriko ditugu, kultura ez delako gastua, zerbitzu publikoa baizik. Eta noski, inolako bazterketarik lagundu eta bultzatu gabe, ez emakumeen kontra, ez beste kultura eta erlijioen kontra, ezta ingurumenaren eta animalien kontra ere.

Hortaz, honako hau proposatzen dugu:

- Eragile sozialei laguntza, babesa eta elkarlana eskainiko diegu, baina euren autonomia errespetatuz.
- Santurtziko kultur ondarea berreskuratzearen aldeko apustu garbia. Serantes mendia behin betiko errekonstruituz eta herriko bestelako eraikin eta lekuak ere errekonstruituz.
- Auzoetako jaiak eta izaera herrikoia bultzatu Udala horretan inplikatur.
- Oroimen historikoa aitortu eta berreskuratu. Serantes mendiaren berreskuraketa lehenetsiz eta herriko ohitura, usadio eta eraikinak berreskuratuz eta eguneratuz.
- Herriko Oroimen Historikoaren Institutua sortuko dugu, Santurtziko oroimen historikoa ikertu, aitortu eta berreskuratuko duena, bai frankismoaren biktimena baita frankismoaren aurkako borrokalariena ere.
- San Jorge eta Karmen jaiak bultzatu antolatzeko irizpide berriak ezarriz. Herrian diharduten eragile ezberdinak kontuan hartuko ditugu benetako jai herrikoiak antolatzeko.
- Urteroko Kultur Egutegia sortuko dugu, eragile eta herritarrez osatutako lantaldeak kudeatu eta sortuko du Santurtziko eragile ezberdinek antolatzen dituzten ekintzak bultzatzeko asmoz.
- Liburutegien dinamizazioa sustatzea, funtsetarako finantzaketa handituz, eta irakurketa dinamizatzeko programak sortzea.

- Hainbat diziplinatako bertako artistek eta artisauek beren lanak (tailerra) egin ahal izateko espazio publiko bat eskaintzea, profesionalen eta/edo amateurren arteko elkarreragina erraztuko dugu eta beren lanak erakusteko prestutasunarekin (galeria).
- Musika Eskola sustatzea: matrikulazioa sustatzea, ikasleen balioa nabarmentzea jardueretan parte hartuz eta kaleak dinamizatuz....

KIROLA

Kirol-klub eta -elkarteekin batera, dirulaguntzak baremoa ezartzeko sistema justu eta orekatu bat aztertuko dugu, hainbat alderdi barne hartuta, hala nola emakumeek kirolean parte har dezaten sustatzea, kolektibo kalteberak sartzeari, kirol egokitua eta abar.

Udal kirol ekipamenduen egoera eta klubaren beharrak aztertuko ditugu, beharrezko konponketak eta hobekuntzak larrialdien eta lehentasunen arabera planifikatzeko.

Kirol-zerbitzuak deszentralizatuko ditugu, eta kirol-eskaintza auzoetara eta herriko hainbat eremutara eramango dugu (gimnasio publiko txikiagoak, aire zabaleko kalistenia-guneak, txandakako jardueren eskaintza auzoka asteko hainbat egunetan).

Mikel Trueba kiroldegiko kanpoko igerilekuetako aldagelak eta dutoak berrituko ditugu, baita barruko gelak ere (kirol-elkarteen lokalak, oinarrizko gimnasioa), lehentasunak erreforma-premia larrienen arabera jarriko ditugu egutegian.

Bizikletak aparkatzeko gune berriak jarriko ditugu, baita garbitokiak ere, Mamarigako biltegian, Villarren Bidegorrirako sarbidean eta Zierbenarako Bidegorriaren hasieran.

UDALETXEA: PARTAIDETZA ETA GOBERNANTZA KOOOPERATIBOA

Gaur egungo sistema politikoaren ereduaren den-dena erabakitzen da jendeari bizkarra emanda, auzokideei bete-betean eragina egiten dizkiguten erabakiak barne. Kasu hoberenetan, herritarroigurre iritzia eskatzen zaigu, baina ez da guztiz kontuan hartzen. Uste dugu pausu bat egin behar dugula parte-hartzeari dagokionean, eta Instituzioa zabaldu behar da, auzotarrak sartu ahal izateko zein Instituzioa bera kalera ateratzeko, eta parte-hartzea edo iritzia eskatu ordez, kooperatzeko, boterea eta erabakien hartzea elkarbanatuz. Horregatik, beste eredu batera non informazioa, gardentasuna eta benetako parte-hartzea oinarrizkoak direla helburutzat jotzen dugulako, hori lortzeko ibilbidea sortu behar da, gizarte hau eraikitzen dugun pertsona guztiak ahaldundzeko.

Horretarako, berehala martxan jartzeko hainbat neurri planteatzen dugu, hala nola herritarron parte hartzea arautuko duen Udal Ordenantza herritarron parte-hartze zuzenaren bidez sortzea, honako puntu hauek jasoko dituelarik:

- Udalbatzak arratsalde egitea eta auzokideak parte-hartzeko aukera izatea. Eta noski, kaltetuak edo interesatuak izan daitezkeen auzokideak ere gonbidatuta izatea.
- Arlo bakoitzeko Informazio batzordeak: Udalbatzetako planteamendu berbera.
- Alkate eta zinegotzien aldizkako agerraldi publikoak
- Elkarte, pertsona eta sektore guztietara informazioa heltzeko bermatuko duen sistema garatzea.
- “Auzo zinegotzien” figura sortzea. Auzokideentzako erreferentzia nagusia izango litzateke arazoak konpontzeko edo kudeaketak egiteko, pertsonal politiko gehiagorik libratzeko beharrik gabe, horretarako delegatuak diren zinegotziak bideratuz.
- Eztabaidatzeko eta informazioa elkartrukatzeko guneak sortzea eta erabakitzeko eskubidea izatea bai auzoko kontuetan baita gainontzeko arloetan ere.
- Udal aurrekontuak benetan parte-hartzaileak izateok Udal Ordenantza berezia martxan jartzea.
- Erabaki beharreko gaien garrantziaren arabera, herritarroigaldetzea (erreferenduma) ezinbesteko izatea.

UDALETXEA: GIZA-BALIABIDEAK

Kudeaketa publikoan sinesten dugu, gure auzotarrek jaso behar dituzten kalitatezko zerbitzuen bermatzaile gisa. Baina zerbitzu horiek ez dira behar bezain onak izaten ari, azken urteotan plantilla hustu egin baita udaleko hainbat arlotan (hutsik dauden lanpostuak, betetzen ez diren bajak eta erretiroak, bitartekotasun handiegia). Horren guztiaren aurrean, honako neurri hauek hartuko ditugu:

- Udal-plantilla indartzea, arloen gabeziak eta lehentasunak aztertuta.
- Lanpostuen zerrenda eguneratzea.
- Bitarteko langileen kopurua murriztea: Udaleko bitartekotasun-maila legeak eskatzen dituen gehienekoetara egokitzeko prozesuak egin ondoren, langile-politikari buruzko erabakiak hartzea, modalitate hori ahalik eta baxuena izan dadin.
- Migrazioan, kultura-aniztasunean eta bizikidetzan teknikari lanpostua sortu eta beteko dugu, horrela migratzaileentzako eta errefuxiatuentzako harrera-plana, egokitutako gizarte-zerbitzuen gidak, auzo-gatazketako bitartekaritza koordinatu eta zuzendu eta abar egin ahal izateko.
- Zerbitzuak udalekotzea: Pixkanaka eta gaitasunen arabera, kanporatutako udal zerbitzuak berreskuratzea (ELZ, lehen hezkuntzako ikastetxeetako atezainak, kultur guneeetako harrera).
- Polizia-eredua: Auzoko poliziaren aldeko apustua egiten dugu, hurbiltasuna bermatuko dugu, komunitateari egunero zerbitzua emango diogu, bere arazoak konpondu eta herrikideentzat eta herritarrekin lan egingo dugu. Gatazkak konpontzeko tresna alternatiboak sartzea, bitartekotza-sistemak abian jarritz, bai polizia-operatiboak sortzen direnean, inplikaturako pertsonekin eta haien artean komunikatuz kudeatzeko, bai beste teknika alternatibo leheneratzaile batzuk garatzeko, ikuspegi zigortzaile hutsa saihestuko dugu. Hainbat udaletan segurtasun-itunak, koordinazio-konpromisoak, udaltzaingoaren araudiak, ordenantzak eta bestelako tresna arautzaileak ezartzen ari dira. Horiek guztiak beharrezkoak dira, baina, batez ere, praktikan bete egin behar dira, eta berrikuspen- eta kontrol-mekanismoak ezarri. EHBilduk horrelako tresnak bultzatzeko prest dagoela adierazi du, plantillarekin egindako barne-prozesuen eta herritarren parte-hartzea bultzatzearen ondorioz.

ehbildu